

L.H. 4. maila

Xabier Malaxetxebarria,
Julen Omaetxebarria
eta Markel Rodriguez
«Athletic zaleak gara»

# «Basoan galduta»

## "Basoan galduta"

Bazirein behin bost lagun. Xabier, Jon, Markel, Antton eta Julen Egun batean eskolarekin mendi irteera bat egin zuten Anbotora guraso eta guzti. Heldu zirenean tontoarena egiten hasi ziren eta aldats batetik erori ziren eta esan zuen Jonek:

- Non gaude?
- Non egongo gara ba, Anboton!

Erantzun zuen Julenek.
Eta esan zuen Jonek.

- Apostu bat egingo dugu.

Anboton bagaude nik 10 buelta emango dizkiot Anbotoko harri famatuari baina Anboton ez bagaude zuk emango dizkiozu harriari 10 buelta.



Eta esan zuen Julenek:

-Ados, baina orain goazen gure gurasoak aurkitzen:



Ordu batzuk geroago ibiltzen segitzerakoan gizon bat aurkitu zuten eta galdetu zuten Xabierrek eta Markelek:

- Jauna, badakizu non gauden?

- Perdon niños ¿me lo podeis traducir al castellano?- Erantzun zuen gizonak.

-Si señor, como usted quiera. Nos hemos caido de una cuesta y queremos saber donde estamos.

Esan zuen Anttonek

- Estais a cincuenta metros de la famosa piedra de Amboto.- Erantzun zuen.

-Gracias señor.-Esan genion.

Heldu zirenean euren gurasoei istoria guztia kontatu zien eta apostua egin zuten moduan Jonek 10 buelta eman zizkion harriari.





Danel Unamuno Gonzalez
«Kirola eta marrazkiak egitea asko gustatzen zaizkit»

# «Gorkaren Ametsa»

GORKAREN AMETSA

Orain dela urte asko, Gorka izeneneko ume bat jaio zen. Hazi zenean mutil altua izan zen, ile beltza zuen eta gimnasiora joatea asko gustatzen zitzaion. Bilbotarra zen eta gurasoekin bizi zen. Futbola gustukoa zuen, Athleticzalea zen. Mutilak amets polit bat zuen, "astronauta izatea".

Egun batean, nagusitu egin zenean, astronauten probak egiten egon zenean bibotedun gizon zahartxu bat hurbildu zitzaion eta hauxe esan zion: "astronauta izateko baimena duzu".
Hori entzunda, poz-pozik joan zen etxera.

Hiru urte pasata, egun eguzkitsu batean, entrenamenduak egin ondoren, han da, 1982. urtean, astronauta arropak jantzita: Kaskoa, jertsei eta praka bereziak, espazioontzian sartu zen izarrar

tean. Joanda joan, azkenean "planeta berri bat" aurkitu zuen. Merkurio planetaren ondoan zegoen jarrita. Gorka han joan zen dena miatzera eta pilo bat argazki atera zituen.



Nahiko planeta arraroa zen. Kraterrak zituen, baina bertan dinosauroak bizi ziren, lasai-lasai, gizakirik gabe.
Txunditurik geratu zen animaliak nolakoak ziren ikusita.
Handik astebetera irten zen eta espazio erdian, espaziontzia gelditzen hasi zen. Guztiz kezkaturik, Marte planetarantz abiatu zen. Bertan, motor barruan harri txiki bi aurkitu zituen. Harriak atera eta Lurra planetarantz zuzendu zen. Gure planetara heldu zenean, poz-pozik kontatu zien bere amets eder hori egi bihurtu zela. Jendeak ezagutu nahi zuen Gorka. Azkenean oso famatua egin zen, horregatik telebistan eta egunkarietan agertzen zen eta jendeak argazki horiek ikusi ondoren, "NIKUS" izena ipini zioten planeta berriari.

Ordutik aurrera, denek jakin zuten non zeuden dinosauroak. Aurreramtzean bidaiak

antolatzen zituzten "Nikus" planetara joateko.

Egia ala gezurra? Begi bien artean sudurra.
Gezuna ala egia? Sudurraren ondoan begia.





Irati Unzueta Cuende
«Handitan animaliak eta landareak ikertzea gustatuko litzaidake»

# «Ni desberdina naiz»

## Ni desberdina naiz

"Kaixo ni Ana naiz eta nire ama, dupita arraina da eta nire aita, txakurra da.
Nik ez nuke nahi, nire ama arraina izatea eta nire aita txakurra. Baina a ze sorte txarra nirea!
Eta ni zer naiz? Ni gorputz erdi txakur eta gorputz erdi arrain.
Arazo hori konpondu nahi nuke baina ezin dut, horregatik laguntza behar dut"
Eta hori idatzi zion bere lagunari Karmelari. Ikastolara joateko eguna heldu zen baina Ana ez zen oso pozik joan, denak burla egiten ziotelako. Baina berak gogoko zuen ikastolara joatea. Anari, asko gustatzen zitzaion lanak egitea, lagunei laguntzea... Arratsaldea heldu zen eta etxera joateko garaia zen. Ana oso pozik zegoen ikasturte honetako lehenengo egunean, ez ziolako inork burla egin. Egunak joan eta egunak etorri ziren. Eta behin, Ana ikastolara joan zen eta burla egin zioten. Denak esaten zuten: ja ja ja oso itxusia zara eta gainera gorputz erdia arrainarena duzu eta beste




erdia txakurrarena. Irteteko ordua laster iritsi zen eta Ana negarrez joan zen etxera. Gurasoek esan zioten: zu guretzat bakarra zara eta gainera desberdina izanga zara, baina zuk besteak errespetatzen dituzu eta zuk ez duzu inor baztertzen. Hori entzutean lasaiago geratu zen. Ikastolatik hondartzara joan ziren. Uretara sartu ziren eta Ana  bere txakur usaimen onarekin bere laguna arriskuan zegoela konturatu zen.

Bere arrain gorputzarekin, salbatu egin zuen. Denak txalotka hasi ziren eta lagunak konturatu ziren; naiz eta desberdina izan, gauza askotarako balio zuela. Gehiago ez zioten burlarik egin eta handitan soroslea izan zen.




Irati Urzuela



Andere Uriarte Alegria
«Saskibaloia da nire zaletasunik handiena»

# «Jone eta etxe zaharra»

Orain dela urte asko, Murikako auzo txiki batean bazen neska bat Jone deitzen zena. Begi urdinak zituen eta ile horia. Argala eta garaiera handikoa zen. Korrikalari bikaina zen eta oso azkarra. Jonek txiki-txikitatik detektibea izan nahi zuen.



Egun batean Jone Murikako auzo txiki batean, txakurra paseatzen zegoela, etxe zahar bat aurkitu zuen. Teilatua erdi oker zegoen eta etxea orokorrean erortzeko zorian. Zerbait susmagarria nabaritu zuen, baina aurrera jarraitu zuen eta ez zion kasurik egin. Hurrengo egunean, besteetan bezala, etxe zaharraren paretik pasatu zen, eta baita hurbildu ere, ea zerbait berezia gertatzen zen ikustera. Bat-batean, hara non, itzal bat ikusi zuen.

Ikaratuta ihes egitea erabaki zuen eta beste momentu batean, itzultzea, badaezpada ere. Hurrengo egunean Jone Kortak hartzera joan zenean pentsatu zuen:

- Nor egongo ote da etxe zahar horretan? Norbait biziko ote dator?

Ondo pentsatu ostean etxe zahar hartara berriro joatea erabaki zuen. Heldu zenean, astiro-astiro eta isil-isilik etxerantz hurbiltzen hasi zen, eta etxeko aldaba jotzera zihoanean pentsatu zuen:

- Eta atea jo gabe sartzen banaiz?

Pentsatu eta egin. Halaxe, atea jo gabe leiho handi batetik sartu zen. Etxea miatzen hasi zen, armairuetan, mahai azpiko apaletan... eta gauza guztien artean, batek harritu zuen bereziki: Neska baten argazkia zegoen leku guztietan zehar. Etxea miatzen jarraitu eta 3 bat neska aurkitu zituen lo sakonean. Zer egin pentsatzen zegoela, gizon bat atzetik agertu eta Jone lotu zuen. Orduan Jonek esan zuen:

- Aizu, gizon! Zergatik lokartu dituzu neska hauek?

- Nik ez ditut lokartu. Etxe hau madarikatua dago. Aldaba jotzen duena lo geratzen da urte batez.

- Eta nola esnatu ahal dira berriro?

- Ateko aldaba 3 aldiz arin jota. Baina 10 urte baino gutxiagoko neska batek bakarrik egin dezake.

- Ados! Baina aska nazazu, ez dizut ezer egingo eta.

- Ongi da!

Bi egun bakarrik falta ziren Janek 10 urte egiteko, eskerrak!

Jone askatu zuenean, neskak esnatu zituen. Orduan gizonak azaldu zion nola orain dela urte batzuk bere alaba hil eta gero, aldaba jotzen zuen bakoitza lo geratzen zen. Horrela, poliziari deitu eta dena argitzean, Jonek kasu bat argitu zuela konturatu zen. Bere ametsa bete zuen, detektibe bihurtu zen. Gizon hura Joneren laguntzaile bilakatu zen desagerpen kasuetan, eta handik aurrera denak pozik bizi izan ziren.

Hala bazan edo ez bazan, ez jo aterik edozein etxolatan!



